

Lan-eskaintza

CEO Tramola

Tramola intralogistikaren sektorerako robotikako startup berritzaile bat da eta Tecalia teknologia-zentroaren garapenak ditu oinarrian. Gainera, bermatutako seed aurreko prozesua egina du.

Joan proiektura



Lanaldi osoa



Donostia



Hibridoa

Zeregin nagusiak

Arrakastara bidean funtzio hauek betez gure proiektua zuzenduko duen CEO dinamiko eta irudikor baten bila ari gara.

- Startuparen Estatu mailako eta nazioarteko hazkundera eta eskalagarritasuna lortzeko enpresa-estrategia definitzea eta gauzatzea, eta administrazio-kontseiluarekiko harremana kudeatzea.
- Finantzaketa-prozesuak zuzendu eta inbertitzaileekiko harremanak kudeatzea.
- Lan komertzialak bere egitea, merkatu-azterketa eta erabiltzaileen datu-basea hedatzeko bezeroen bilaketa aktiboa barne.
- Eguneroko eragiketak gainbegiratzea finantza arlotik.
- Talde teknikoarekin koordinatzea helburuak betetzen direla bermatzeko.
- Enpresaren ordezkaria izatea sektoreko ekitaldietan, klusterretan eta konferentzietan.
- Berrikuntzaren kultura eta elkarlana sustatzea talde baitan.

Prestakuntza:

Goi mailako Ingeniaritza / Masterra (MBA, ADE edo Antolakuntzako Ing.) edo Lizentziatura / Masterra Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan, eta esperientzia elementu teknologiko handiko proiektuetan.

Lan-esperientzia:

- Esperientzia frogagarria CEO gisa edo goi mailako zuzendaritzako postuan (ahal dela, startup teknologikoetan).
- Ekonomia eta finantza arloko ezagutza handiak.
- Esperientzia estrategia komertzialen garapenean eta merkatu-azterketan.
- Lidergoarekin eta komunikazioarekin lotutako aparteko gaitasunak.
- Esperientzia inbertitzaileen kudeaketan eta kapital-altxatzean.
- Ingurune dinamikoan lan egiteko gaitasuna.
- Ikuspegi estrategikoa eta erabaki informatuak hartzeko gaitasuna.
- Robotikaren sektorearekin eta/edo intralogistikarekin lotutako ezagutzak modu positiboak baloratuko dira.
- Nazioarteko esperientzia.
- Ingelesa menderatzea, ahoz eta idatziz (C1 maila). Beste hizkuntzak menderatzea modu positiboan baloratuko da.

**Interesatzen zaizu?
Sartu hemen, mesedez**